



CONFINT 2014- BARTZELONA

Azaroaren 12tik 15era lurretako Juan Orobiogoitiako 3 ikasle Euskadiko beste 18rekin batera Bartzelonara joan ginen Estatu mailako II Gazteen Konferentzian parte hartzera. Han komunitate ezberdinetako 123 gazte bildu ginen gure planeta zaintzeko asmoz hausnarketa ezberdinak egiteko.

Lehenengo egunean autobusa goizeko 11:30etan hartu eta gaueko 20:00etan gutxi gorabehera heldu ginen. Heldu bezain laster, afaldu eta beste gela batean komunitate bakoitzeko tradizioak azaldu genituen. Bukatzerakoan, lo egitera joan ginen hurrengo eguna lanez beteta zegoelako.

Goizean, esnatu eta gosaldu ondoren, lan egiten hasi ginen. Konferentziaren hasierako hitzaldia izan genuen lehenengo, eta gero ekintzak egin genituen. Lehenengoa “Abre los ojos” izan zen eta bertan taldetan banatuta gure herri edo hiriko arazoak mapa batean kokatu egin behar izan genuen. Ondoren “Entrevista con el vampiro” egin genuen. Bertan, institutu bakoitzak eraman zuen kartela edo dazibaoa (egunkari orria) aurkeztu izan behar genuen, eta ondoren atarian zenbaki batekin izendatuta egon ziren eta guk beste institutu etako Dazibaoak asmatu edo aurkitu egin behar genituen.

Bazkaldu eta gero, taldetan banatu ginen berriro eta ideia batzuk eman zizkiguten. Ideia horiek 3 multzotan banatu behar genituen, 1. Klasean egiteko, 2. institutuan egiteko eta 3. herrian edo auzoan egiteko. Taldean lan egin ondoren, beste kideekin ideiak konpartitu genituen. Hori bukatzerakoan, tailerretan banatu ginen: posterra, bideoa, dantza, manifestua... Bukatzeko jolas bat egin genuen.

Hirugarren egunean, gosaldu ostean, lau taldetan banatu gintuzten herrian ekintza batzuk burutzeko: Mapeoa osatu, haurren jokoak prestatu parke baterako, landare inbaditzaileak kendu baso batean eta graffitia egin horma batean. Gero, bazkaldu ostean, Bartzelonara joan ginen eta Ramblasetatik ibili ginen buelta bat ematen, eta gero Montjuic-eko iturriak ikustera joan ginen. Horren ostean egoitzara bueltatu ginen metroz.

Larunbat goizean, hiru egunetan zehar egindako atazak aurkeztu ondoren, botazioa egin genuen Bruselara joango diren delegatuak hautatzeko. Horren ostean, busa hartu genuen bueltan etortzeko.

Oso esperientzia polita izan da. Lagun berri asko egin ditugu, eta pozik gaude bertan egindako lanarekin.

IKER BLANCO
ANE UNZALU
EMMA VILLENA

